

Laudio



Llodio

OBRA, ZERBITZU ETA MANTENTZE-LANEN ARLOA
Tf.: 94 403 4860 / Fax.: 94 403 4754

ÁREA DE OBRAS, SERVICIOS Y MANTENIMIENTO
obras@ludiokoudala.net

Herriko Plaza
01400 Laudio / Llodio (Araba / Álava)
www.laudiokoudala.net

KALE GARBIKETA ETA HONDAKIN BILKETAKO UDAL ORDENANTZA

**Udalbatzarrak 2010eko uztailaren 27an onartu zuen hasierako izaeraz
Hasierako onarpenaren argitalpena ALHAOn: 2010-08-06ko 88. zenbakian
Udalbatzarrak 2010eko azaroaren 29an onartu zuen behin betiko izaeraz
Behin betiko onarpenaren argitalpena ALHAOn: 2010-12-24ko 145. zenbakian
Indarrean sartu: 2011-01-15**



KALE GARBIKETA ETA ZABOR ETA HONDAKIN BILKETAKO UDAL ORDENANTZA

HITZAURREA

Toki Erakundeei esleitutako erregelamenduzko ahalmena egikaritzuz, Laudio Udalak behin betiko onartu zuen kale garbiketako Udal Ordenantza bat 1991ko urriaren 29an (1991ko azaroaren 11ko 131 zenbakidun ALHAOn). Ordenantza horrek berrikuspena behar du zerbitzuaren gaur egungo prestatze moduaren errealitatera egokitzeko, bereziki zabor biltze selektiboarekin, aurrerapen teknologikoekin eta udal ordenantza hori indarrean sartu zenetik hona gertatu diren lege aldaketekiko bat etortzea doitzeko.

Aipatu den Ordenantza horretako sarreran adierazita zegoen legez, habitat urbanoa hobetu nahi da, Laudio herri garbiago, higienikoago eta bizigarriagoa eginez, geure bizitza kalitatea egunetik egunera hobetuz eta, aldi berean, bizilagunarentzako informazio erdua izanik. Horrexetarako lortu nahi du ordenantza honek herritarren lankidetzeta eta partaidetzeta zerbitzua prestatzeko orduan, geure kale, plaza, lorategi eta, oro har, hiriko altzari urbanoak dituen espazio eta leku garbi iraunarazteko hiritarren kontzientziazio handiagoaren bidez.

Ordenantza honek lortu nahi du hiri espazio urbanoa kalitatekoa izatea, horretarako ardurak eta erantzukizunak mugatuz eta zehatuz, hala administrazioarenak, nola herritarrenak. Zertarako? Bada, jarrera arduratsu batekin, emaitzarik onenak lor daitezten kale garbiketaren eta hondakinak kudeatzeko orduan, horien aurretiko bereizketa erraztuz era selektiboan biltzeko.

Horretarako erregulatuta dator hiriko hondakin solidoen biltze automatizatuko sistema; hondakin horiek botatzeko buzoiak nola erabili behar diren arauak ezarri dira eta zehaztu egin dira Administrazioaren eta erabiltzaileen obligazioak eta ardurak.

Betiko zaborra biltzeko sistemaren ezaugarria da nork berak bere etxe barruan hondakinak aldi batez biltegitatuta eduki behar dituela, biltegitatuta egon behar duela bide publikoan dauden kontenedoreetan edo horien zama-hustuketa lanek sorrarazten duten zarata eta zikinkeria, beti ere arazo iturri higieniko - sanitario eta kutsadurakoak direnak.

Arazo horiek konpondu hori dira zabor biltze sistematizatua erabiliz. Dituen abantaila ugarien artean, erabiltzaileari baimentzen dio eguneko edozein ordutan hondakinak buzoian botatzea, zabor biltze sistema hori ezarrita dagoen zonan ibilgailuen zirkulazio gutxitu eta ahalbideratzen du hondakinak biltzea forma erabat hermetikoki itxian Zentralaren barruan.

Aldeko ezaugarri guzti horiek bihurtu dute zabor eta hondakinaren biltze automatizatua edozein zona urbanokorako sistema egokia izatea, bere konfigurazioa dena dela izanda ere, eta lortu egin duten sistemaren onarpen sozial gradua bizilagunen erkidegoari eskaintzen dizkion onurekin batera dator.

Ordenantza hau era zuzenean ezarriko dela bermatzeko, zehapen eta zigor araubidea txertatu zaio Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko XII Tituluarekin doitzuta eta batera datorrena, horrek ahalbidea ematen duelarik arau-hausteak eta zehapenen eta isunen tipifikazioa toki arloko xedapen orokorren ildotik ezartzea, arloan eta gai horretan sektoreko legegintza berariazkorik ez dagoenean. Erregulazio berri honek auto-



antolamendu ahalmena eta arautze-ahalmena hedatu eta zabaltzen du, legezkotasun printzipioari zor zaion errespetua eta egokitzapen printzipioari inolako kalterik eragin gabe.

ATARIKO TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. ARTIKULUA.- OBJEKTUA, HELBURUA, XEDEA

1.- Udal Ordenantza honen objektua, helburua eta xedea da, udal eskumenaren eremuaren barruan, ondorengo jarduera hauek erregulatzea eta arautzea:

- a) Kale eta bide publikoen garbiketa, herritarrek dituzten obligazioak oro har eta suposatu eta kasu berezi batzuetarako zehaztuz.
- b) Etxeetako kontsumoaren ondorioz sortutako Hondakin Solidoen eta gainontzeko hondakinen bilketa, zeintzuk, euren izaera eta ezaugarriengatik, aurrekoekin berdinkidetu ahal direlarik eta, orokorrean, herriko edo udalerriko hondakin guztiak biltzea.
- c) Hondakinen Biltze Selektiboa.
- d) Izaera bereziko hondakinen berariazko bilketa, hala nola altzariak eta etxeko gauzak.
- e) Arau-hausteen tipifikazioa eta ezarri / ipini beharreko zehapenen isunak zehaztuta.

2.- Edozein kasutan ere, Ordenantza honetan aurreikusi gabe dauden kasuetan, baina horien ezaugarri, izaera eta inguru abarrengatik Ordenantza honen aplikazio-eremuaren barruan sartuta egon litezkeenak, analogiaz, aplikaziokoak izango zaizkie bertako arauak aurreikusitako kasuarekiko berdintasuna eta kidetasuna gordetzen badute, salbu eta eskubideak murriztekoak eta zehapenekoak eta isunak jartzekoak.

2. ARTIKULUA.- APLIKAZIO-EREMUA

Ordenantza hau aplikaziokoa izango da Laudio Udalerriko barruti guztian.

I. TITULUA

GARBITASUN PUBLIKOAZ

I. KAPITULUA

OHIKO ERABILERA NORMALAREN ONDORIOZ EGIN BEHARREKO GARBITASUN PUBLIKOAZ



3. ARTIKULUA.- KALEA ETA BIDE PUBLIKOA

1.- Ordenantza honen ondorioetarako, kale eta bide publikotzat hartuko dira, beto ere izaera enuntziatiboz eta ez murriztailez: , kaleak, pasealekuak, etorbide eta hiribideak, ataurre eta atari ondoak, bulebarrak, zeharbideak, plazak, oinezkoen esparruak, portikodun edo arkupedun aldeak, parkeak, lorategiak, kanpoko azalerako aparkalekuak, tunelak, eskailerak eta azpiko pasabideak eta gainerako erabilera publikoko ondasunak, horien jabetzaren titulartasuna edozein dela ere, baldin eta herritarren erabilera komunera zuzenean xederatuta badaude.

2.- Erabilera partikularreko bideak, zona komunak, zona berdeak, e.a. horien jabeak garbitu behar ditu Udaleko Obra, Zerbitzu eta Mantentze-lan Arloak higiena eta apaindura publikoari buruzko adieraziko dizkion jarraibideekin bat.

Aldez aurretik egikaritzeko agindua emanda izanez gero, jabeak ez badu behar den legez obligazio hori betetzen, garbiketa hori Udal Zerbitzuek egin ahal izango dute era zuzenean edo zeharka eta jabe horrek ordaindu behar izango ditu prestatu zerbitzuen zenbatekoa, egokituko litzaiokeen zehapena edo isuna ipintzearen kalte barik.

4. ARTIKULUA.- ESKUBIDE ETA BETEBEHAR–OBLIGAZIOAK: ARAU OROKORRA ETA ARAU ESPEZIFIKOAK

1.- Egiten diren lekuan egiten direla, izan ere horrek berdin diolako, eta derrigorreko eta beharrezkoak diren lizentzia eta baimenen kalte barik, bide publikoa lohitu, zikindu edo saskildu ahal duten jarduera guztiek eskatzen dute jardueraren arduradun eta erantzuleak bide publikoak saskelkeria ez uzteko beharrezkoak diren neurri guztiak hartu ditu eta erasandako eta eragindako aldea behar den maiztasunaz eta sarri garbitzeko obligazioa dauka, hondakin material guztiak erretiratuta.

2.- Bereziki, ondorengo galazo eta debekuak ezarri dira:

- a) Bide publikoan uztea hiriko hondakin solido urbanoak biltzeko zerrendan sartutako ezaugarri eta izaera ez duen edozein solido edo likido mota.
- b) Martxan zein geldidun daudela, ibilgailuetatik edozein hondakin jaurtitzea.
- c) Bide publiko gainean arropa eta oinpekoak astintzea, 9:00 - 23:00 bitartean. Dena den, eta ordutegi horren barruan, baimendutako gainerako lekuetan, astintze lan horiek egin beharko dira kale eta bideetako erabiltzaileei eragozpenik ez sorrarazteko.
- d) Terraza eta balkoietako lorontziak ureztatzea edo garbitzea, horren ondorioz bide publikora edo bere elementuetara isuriak edo zipiritinak gertatzen badira 9:00 – 24:00 ordutegi barruan. Dena den, eta ordutegi horren barruan, baimendutako gainerako lekuetan, operazio eta zeregin edo lan horiek egin beharko dira kale eta bideetako erabiltzaileei eragozpenik ez sorrarazteko.



- e) Tua botatzea edo beharrizan fisiologikoak egitea eta libratzea bide publikoan.
- f) Eraikin, etxebizitza edo establezimenduetako leiho, terraza, balkoi, kanpoko begira lekutik, e.a. bide publikora edozein hondakin mota jaurtitzea.
- g) Bide publikoa lohitu ahal duen edozein jarduera egitea, batez ere ibilgailuak konpontzea eta garbitzea, horien garbitzearen osteko urak isurtzea eta kalean edo bide publikoan edozein hondakin manipulatzeko.
- h) Baimendu gabeko edozein hondakin mota saneamendu saretik isurtzea.
- i) Animaliak garbitzea bide publikoan.
- j) Hildako animaliak abandonatzea.
- k) Askatasunean bizi diren animalien kontsumora xederatutako edozein elikagai mota bide publikoan uztea.
- l) Hondakinak eta zaborrak garraiatzea bide publikoa ez zikintzeko beharrezko neurriak hartu barik. Lurren, eskonbroen, eta abarren kasuan, bide publikora irten aurretik ibilgailuen azpi aldeak eta gurpilak garbituko dira eta, hala beharrezko balitz, hauts-aurkako estaldura eduki beharko dute.
- m) Edozein hondakin material mota uztea, isurtzea edo uztea galtzadan, terrenoetan edo antzekoetan.
- n) Bide publikoetan ipinitako paperontzi eta hondakinen ontzietara botatako elementuetan bilatzen aritzea, arakatzea eta elementuak kanpora ateratzea.
- o) Denda barruak edo kanpoaldeak, establezimenduak, atariak, eta abar inarratu osteko produktu hondakinak bide publikora, estolderia sarera, eta abarretara botatzea. Aipatu diren guzti horiek bildu egingo dira zabor biltze sisteman edo eraikin barruko estolderia sarean uzteko.
- p) Esandako eta adierazitako leku eta denboraz kanpo eta udal baimenik gabe, eraikuntzako herri-lanen edo eraikinen edo horietako etxebizitza edo aretoen baten eraberritze lanetatik eratorritako mota guztietako objektuak, eskonbroak eta hondakinak bide publikoan uztea.

3.- Helburu berdinez, ondorengo obligazioak ezarri dira:

- a) Paperak, zigarro-fitak, txikleak eta antzerakoak legezko bolumen txikiko hondakinak paperontzian utziko dira. Txokorrak, puruak, zigarroak edo beste antzeko edozein material ezin izango da bota iziotuta edo piztuta dagoela, beti ere alde aurretik amatu eta itzali egin behar direlarik.
- b) Bolumen handiko hondakinak erretiratu behar dira Ordenantza honetan erabakitakoari jarraituz eta horrekin batera. Ditzuten ezaugarri edo izaera fisiko edo kimikoengatik udal zerbitzuetan eskuragarri dauden ekikoek ezin badituzte horiek kudeatu, edukizailerik beraiek arduratu behar dira horiek erretiratzeaz Herriko Etxeak emandako jarraibideen arabera eta indarreko araudiarekin batera.



II. KAPITULUA

HAINBAT JARDUERAREN ONDORIOZ BIDE PUBLIKOA GARBITU BEHARRA

5. ARTIKULUA.- GARBIKETA MERKATARITZA DENDETAN

1.- Partikularrek eta norbanakoez egindako merkataritza establezimenduetako eta antzerako espakarate, dendetako barru alde, saltokien garbiketa ordenantza honetan agindu eta xedatutakoarekin bat egin beharko da, kontu handia hartuz bide publikoa ez zikintzeko eta oinezkoentzako eragozpenik ez sortzeko. Hori ez bada betetzen, merkataritza jardueraren titularrak izango da erantzulea.

2.- Publikoarentzako zabalduetako merkataritza establezimenduek euren titulartasuneko establezimenduko eragin-eremu inguruko alde guztia garbitu eta inarratu egin behar dute.

3.- Interesatuak ez badu berari dagokion garbiketarik egin edo garbiketa hori eskasa bada edo ez nahikoa, iritzi tekniko, bide publiko baldintza egokietan mantentzeko, bada, orduan, establezimenduko titularrak bere gain eta bere kargura hartuko du beharrezkoa izango den garbiketa hori egiteren kostua eta zenbatekoa, are udalaren ordezkariaren izenez egikaritzen den kasuan ere, horregatik ipini ahal zaizkion zehapen eta isunen kalte barik.

4.- Higiene, espazio, estetika eta garbitasun arazoengatik, galazota eta debekatuta dago produktuak denda edo merkataritza establezimenduen kanpo aldean erakusten ipintzea, salbu eta udalaren ebazpenaz beren beregi eta berriaz baimendutako kasuetan izan ezik.

6. ARTIKULUA.- ALTZARIAK ETA ETXEKO GAUZAK UZTEA ETA BILTZEA

1.- Galazota eta debekatuta dago kalean edo bide publikoan altzariak, etxe-ko gauzak edo/eta etxetresnak uztea.

2.- Udal Zerbitzuen ahalmena izango da bide publikoan utzitako objektu edo material guztiak erretiratzea alde aurretik horretaz inolako ohartarazpenik egin barik.

3.- Udalak herritarren eskura ipiniko du alde aurretik adierazitako egunetan altzariak, etxe-gauzak eta etxe-tresnak doan biltzeko zerbitzua. Horretarako, interesatuek abisatu egin behar dute, gutxienez ere, utzi baino bi egun lehenago, adierazita horiek duten bolumena eta zein lekutan utziko dituen. Etxeko gauzak utzi egin beharko dira erretirarako adierazitako egun berean.

4.- Udal zerbitzuek erretiratutako materialak udal agintaritzak horretarako aurreikusitako lekuetara eramango dira uzteko edo deuseztatu eta ezeztatzeko, indarrean dauden legeetan aurreikusitako araubidearen arabera.



III. KAPITULUA

KALEAN ETA BIDE PUBLIKOAN ANIMALIAK EDUKITZEA

7. ARTIKULUA.- ANIMALIAK EDUKITZEA

- 1.- Beraien jabe diren animaliek bide publikoan sortu ahal duen edozein saskelkeri edo zikinkeria egintzaren eta beste pertsona edo gauza batzuekiko eraginen edo kalteen arduradunak edo erantzuleak jabeak izango dira.
- 2.- Jaberik ez bada ageri edo absente badago, bere ordezeko erantzulea izango da egintza gertatu den momentuan eta unean animalia amarran daraman pertsona.
- 3.- Animalia batek bide publikoa saskeldu eta zikintzeko kasu baten aurrean, udal poliziako udaltzain agenteek ahalmen-duta daude eta agindua daukate jabeari edo edukitzaileari, amarratuta daramanari, sorrarazitako kalte-zeko eragina berehala konpontzeko.
- 4.- Era berean, Ordenantza honetan zehazten ez diren kasuetan, txakurrak edukitzea eta babestea arautzen duen Udal Ordenantzari egin beharko zaio kasu.

8. ARTIKULUA.- EKIPAZIO BEREZIAK

- 1.- Herriko Etxeak ekipazio bereziak ipini eta ezarriko ditu udalerrian zehar laguntza-animalien obramendu libratzeak –gorotzak- uzteko. Horretarako prestatutako lekuak seinalizatuko ditu, kontenedore elementu egokiak eta prebentzio- eta informazio-seinale egokiak eta beharrezkoak ipiniz elementu horien erabilera hobera egiteko.
- 2.- Neurri horiek ezarri ezin diren bitartean, Lehen Xedapen Iragankorrek xedatutakoa izango da jarraibide-araua. Aurreko idatz-zatian xedatutakoaren arabera, animalia-jabeak edo eramaileak gorotza sartu behar du poltsa iragazgaitz barruan, irmo itxita eta udal zerbitzuek adierazitako paperontzi edo beste eduki-ontzi batzuetan utziko ditu.

9. ARTIKULUA.- OSPAKIZUNAK ANIMALIEN PARTIZIPAZIOAZ

- 1.- Animalien partizipazio behar duten tradiziozko jaiek eta beste ekitaldi publiko batzuek, hala nola kalean edo bide publikoan egingo diren animalien lehiaketek, erakusketek eta antzerakoek udal baimena beharko dute, dagokion tasa ordainduta eta, hala bada kasua, arrazoi horregatik sorraraz litekeen kalte edo saskelkeria edo zikinkeriatatik erantzuteko bermea gordailuan ordaintzea.
- 2.- Dagokion Udal Arloak adieraziko die ekitaldiaren antolatzaileei, kasuan kasuko, garbitu beharko dituzten arloak zeintzuk diren. Ekitaldia amaitu ostean, ikuskapen tekniko gauzatzeko bisitaldia egingo da eta egintza horrexetan bertan eman al zaio ala ez oniritzia



garbitasun orokorraren egoerari. Garbizuzi edo garbialdi berri bat egin behar bada, epea eskainiko da hori egiteko; epea agortu bada garbitu barik edo era nahikoan garbitu barik utzita, udal zerbitzuek egingo dute garbiketa hori ordezeko izaeraz, beti ere, obligatuaren lepora eta kontura.

IV. KAPITULUA

HERRITAR GUZTIEN BIDE PUBLIKOA GARBITZEKO ZEREGIN ETA JARDUERAK ELURTE KASUAN

10. ARTIKULUA.- OBLIGAZIO ETA BETEBEHAR OROKORRAK

1.- Elurra ari duenean, fatxadako aurre aldeko espaloi zatiko elurra eta izotza garbitzeko obligazio dute eta hori egitera behartuta daude, oinezkoak pasatzeko zabalera nahikoa garbi eta libre uzteko helburuaz, eraikinaren jabeek, negozio titularrek, (eraikin publikoak direnean) titular administratiboak, orube eta finken jabeek eta, ordeko izaeraz, horien izenean eta ordezkartizan ari diren arduradunak eta erantzuleak.

2.- Elurra edo izotza espaloiaren bazterrean utzi behar da. Baina ez galtzadan halako moduz ezen:

- a) Aparkatutako ibilgailuen gainean meta eta pila ez dadin.
- b) Ez eragozteko espaloi bazterreko zintarri eta galtzada arteko erretenetik uraren jarioa, ez eta ibilgailuek garajeetara espaloi gainetik sarbidea izatea eta galtzadatik zirkulatzea.
- c) Hurbilen eta gertuen dagoen isurbiderako sarrera edo estolderiako erregistro estalkira edo ahokadurara libre gera dadin.

3.- Beti ere, Udal Zerbitzuek, kasuan kasuko, emango dituzten agindu eta jarraibideei lehentasun guztia eta osoa eman beharko zaie.

11. ARTIKULUA.- DEBEKATUTA ELURRA BIDE PUBLIKORA BOTATZEA

Terraza, balkoi, teilatu eta eraikinetako gainerako ataletan pilatutako elurra ez da inoiz ez eta sekula kalera edo bide publikora bota behar, eskumena duen udal agintaritzak aurkako ebazpenen salbuespenaz.

11. BIS ARTIKULUA.- BESTELAKO KASUAK

Bestelako larrialdi kasuetan (uholdeak, txingor ekaitzak, eta abar), lehentasuna izango dute



Udal Zerbitzuek zehaztutako neurriek eta/edo Alkatetza-Bandoek.

II. TITULUA

ERABILERA KOMUNA, BEREZIA ETA PRIVATIBOAREN ONDORIOZKO ETA
KALEAN EGIN OHI DIREN MANIFESTAZIO PUBLIKOEN OSTEKO GARBIKETAZ

I. KAPITULUA

BALDINTZA OROKORRAK ETA EZARPEN EREMUA ETA BARRUTIA

12. ARTIKULUA.- EZARPEN EREMUA HEDATU ETA ZABALTZEA

Titulu honetan aurreikusita daude udalerrria garbi mantentzeko jarraibide-arauak, honako aspektu hauexetan:

- a) Udal jabetza publiko ondasunen ohiko erabilera berezia eta pribatiboa.
- b) Zikinkeriaren prebentzioa, bide publikoan egindako ekitaldi publikoen eta jarduera publizitarioen ondorioz.

13. ARTIKULUA.- BIDE PUBLIKOAREN ERABILERAK

1.- Bide publikoan gertatutako zikinkeriaren erantzuleak, ohiko erabilera bereziaren edo pribatiboaren ondorioz, zeregin horien titularrak izango dira.

2.- Herritarrei era zuzenean saltzeko establezimendu finkoen ala aldirokoen titularrek, hala nola tabernak, kafetegiak, kioskoak, terrazak, salmenta postuak eta antzerakoak, obligatuta eta behartuta daude behar diren garbitasuneko baldintzetan mantentzeko hala instalazio propioak nola horien ezartzen direneko eta eraginaren mendeko hiriko espazioa ere.

Terraza, beilatoki eta gainerako establezimendu publikoen edo ostalaritzako elementuen garbialdi orokorra egingo du baimena duen titularrak baimendutako lan jardunaldian amaitutakoan, tresna horiek erretiratu bezain laster eta, edozein kasutan ere, hurrengo eguneko goizeko 8ak jo aurretik, une oro, behar diren garbitasun eta higiene baldintzak mantentzearen beharraz aparte eta horrezaz gain. Garbiketa bizilagunei eragozpenik sortu gabe egingo da eta Zaratak arautzen dituen Ordenantzan zehaztutakoa goitik behera beteko da.

3.- Establezimenduaren eragin inguruan salmenta eragiketen ondorioz bide publikoan geratutako hondakinak garbitu beharko dituzte merkataritza titularrek. Establezimendua edo salmenta puntua itxi denetik hasita zenbatuta, garbialdi hori ordu bateko gehieneko epearen barruan egingo da, une oro, behar diren garbitasun eta higiene baldintzak mantendu-beharraz



aparte eta horrezaz gain.

4.- Gertatuko balitz kasua aurreko idatz-zatietan adierazitako obligazio eta betebeharrak ez direla bere, udal zerbitzuek egingo dute garbiketa hori ordezeko izaeraz, beti ere, karguak obligatuaren kostura eta kontura.

14. ARTIKULUA.- EKITALDI PUBLIKOEN ANTOLATZAILE PRIBATUEN GARBIKETA BETEBEHARRAK

1.- Erabilera publikoko espazioetan ekitaldi publiko baten antolatzaile pribatuak eurak izango dira erantzule ekitaldi horien ondoriozko saskelkeria eta zikinkeriaz.

2.- Dagokion Udal Arloak adieraziko die ekitaldiaren antolatzaileei, kasuan kasuko, garbitu beharko dituzten arloak zeintzuk diren. Ekitaldia amaitu ostean, ikuskapen teknikoa gauzatzeko bisitaldia egingo da eta egintza horrexetan bertan eman al zaio ala ez on iritzia garbitasun orokorraren egoerari. Garbizuzi edo garbialdi berri bat egin behar bada, epea eskainiko da hori egiteko; epea agortu bada garbitu barik edo era nahikoan garbitu barik utzita, udal zerbitzuek egingo dute garbiketa hori ordezeko izaeraz, beti ere, obligatuaren lepora eta kontura.

3.- Ekitaldi publiko baten ondorio zuzen legez kalteak gertatuko balira bide publikoan edo hiriko altzarietan, kalte horien erantzule izango dira ekitaldi antolatzaileek edo sustatzaileek, ordaindu beharko dituztelarik berriro ipintzeko gastuak, egintza horiek sorrarazitako zehapen edo isunen kalte barik.

15. ARTIKULUA.- EKITALDI PUBLIKOETAKO ANTOLATZAILE PRIBATUEN PUBLIZITATE JARDUERA

1.- Espazio publikoetako garbitasuna eta apaindura gordetzearen xede eta ondorioetarako, ekitaldi publikoetako antolatzaile pribatuen publizitate jarduera, hala nola kartelak, pankartak, banderatxoak eta beste edozein publizitate jarduera, aldez aurretiko udal baimenaren mende dago lotetsita. Baimenik ez izateak zehapen eta isunak erakarriko dizkie arduradun eta erantzuleei, neurri egokiak hartzearen kalte barik eragindako eta kaltetutako leku eta espazio horiek berriro ere ipintzeko euren ohiko egoeran.

2.- Aurreko idatz-zatian definitutako elementuak ipintzeko udal baimena emateak berarekin batera ekarriko du obligazioa eta betebeharra zikindu diren bide publikoko leku eta espazioak garbitzearena eta baimendutako epearen barruan erabilitako publizitate elementu guztiak eta horiei dagozkien osagarriak erretiratzeko.

Bide publikoan aipatu diren publizitate elementuok ipintzeko edo banatzeko, Herriko Etxeak exiji dezake emandako udal baimenak urratu edo hauste kasurako, zikinkeria sor lezaketen hondakinak edo elementuak espazio publikotik garbitzeko edo erretiratzeko kostuei dagokien bermea gordailuan ordaintzea, egintza horiek sorrarazitako ipini beharreko zehapen



edo isunen kalte barik.

II. KAPITULUA

BIDE PUBLIKOAN KARTELAK, PANKARTAK, BANDEROLAK EDO PEGATINAK IPINTZEAZ

16. ARTIKULUA.- BAIMEN LEKUETATIK KANPO IPINTZEA

- 1.- Debekatuta dago kartelak eta itsasgarriak ipintzea Herriko Etxeak horretarako beren beregi eta bereriaz baimendutako eta gaitutako lekuz kanpo.
- 2.- Debekatuta eta galazota dago titulu honetan araututako publizitate jarduera mota oro hirigintza planeamenduak historiko - artistiko legez edo Euskal Kultura Ondareari dagozkionak edo berdin kide legez katalogatu, kalifikatu edo inbentariatutako eraikinetan. Salbuetsiko dira eraikinean gertatzen ari diren ekitaldien berri ematen duten pankarta eta edo errotuluak edo eraikin horien kontserbazio, zaharberritze edo birgaitzeko obra-lanei dagozkionak direnean.

17. ARTIKULUA.- BAIMENDUTAKO KASUAK

1.- Pankartak, kartelak eta banderolak bide publikoan ipintzea ondoren zehaztutako arauak arautuko dute:

a) Udalak aurrez zehaztutako tokietan, edozein datatan eta Udalaren ezagutzarik edo baimenik izan behar gabe.

Horretarako, Udalak aurretik egokitu beharko ditu publizitatea jartzeko tokiak, dohainik eta jabetza publikoko lurra erabiltzeko baimenik gabe erabili ahal izango direnak. Dena den, toki hauen erabilpenak ondorengo baldintzak bete beharko ditu:

- Kartel, pegatina edo antzerakoek edozein hiritarren interesekoak izango diren ekintza edo ekitaldien propaganda izatea.
- Iragarki-taularen zabaleraren ehuneko 30a baino gehiago ez okupatzea.
- Kartel, pegatina edo antzerakoak zinta itsasgarritz jartzea, errazago kendu ahal izan daitezen eta iragarki-taula hobeto mantentzeko.
- Indarrean dauden deialdien berri ematen duten kartelen gainean ezin izango da bestelakorik itsatsi.
- Udal zerbitzuek astero garbituko dituzte iragarki-taulak.

b) Hauteskunde politikoen garaian eta antzerako egoeratan.



- c) Alkatetza-Lehendakartzak berariaz eta arrazoituz baimendutako kasuetan.
- 2.- Gorago aipatutako 1 c) kasuan, Udal agintaritzak arautuko du, kasuan kasuko, Udalak horretarako xederatutako dituen zein baldintzatan erabil ahal izango diren espazio horiek eta dagokion baimena eskatzeko beharrezko dokumentazioa zein den.
- 3.- Debekatuta dago pankartak eta banderolak lotzea zuhaitzetara edo beste edozein elementu naturalera, bere edozein osagaietatik lotzeko.
- 4.- Pankarta eta banderolak ipintzeko baimen-eskaerak jaso behar ditu zehaztasun hauek:
- a) Pankarta eta banderolen neurriak.
 - b) zein lekutan ipintzeko asmoa dagoen.
 - c) ipinita egongo diren denbora.
 - d) arduradun edo erantzulearen konpromisoa horiek erretiratzeko eta bide publikoan edo bere egiturazko elementuetan sortutako kalteak konpontzeko eta horiek ipintzearen ondorioz sorrarazi izan litezkeen kalteak eta galerak kalte-ordaintzeko.

18. ARTIKULUA.- BETEBEHARRAK

Bide publikoko egiturazko elementuei lotutako pankartek edo banderolek bete behar dituzte ondorengo baldintza hauek:

- a) Farolei lotutakoak: Baimenduta dago bakarrik banderolak ipintzea. Eutsiko zaio farola bakoitzeko puntu bakarrean, soilik eta bakarrik. Eusteko elementuak egituran finkatzeko kontaktuzko gainazalean babes elastikoa edukiko du.
- b) Pankartek gainazal zulatu nahikoa eduki behar dute haizearen eragina gutxitu ahal izateko eta, edozein kasutan ere, zulatutako azalera hori ez da izan izango pankarten azalera guztiaren ehuneko 25a baino gutxiagokoa.
- c) Edozein kasutan ere, punturik baxuenetik neurtuta, ipini behar den gutxienezko altuera 5 m-koa izango da galtzadaren alderik aldekoa denean eta 3 m-koa espaloi, pasealeku eta beste oinezkoen esparru batzuetan.

19. ARTIKULUA.- ERRETIRATZEA

1.- Pankarta, kartel eta banderola horiek ipini dituen arduradunak edo erantzuleak erretiratu beharko ditu baimendutako epea agortu eta iraungi bezain laster. Hala ez bada egiten, udal zerbitzuek erretiratuko dituzte, arduradun eta erantzuleei egotziz eta kargatuz prestatutako zerbitzuari dagozkion kostuak, egintza horrek sorrarazitako ipini beharrek zehapen edo isunen kalte barik.

2.- Bide publikoan pankarta, kartel eta banderolak baimen barik ipintzeak erakarriko dizkie



arduradun, erantzule, enpresa edo sinatzaileei, udal agintaritzak zehapen edo isunak ipintzea. Halaber, horiek erretiratu egingo dituzte udal zerbitzuek, prestatutako zerbitzuaren kostuak arduradunei edo erantzuleei egotziz eta kargatuz.

III. KAPITULUA

PINTADAK

20. ARTIKULUA.- DEBEKATUTA DAUDE.- UDALAREN JARDUNA

1.-Debekatuta eta galazota dago bide publikoan edozein motako pintada egitea, hala egiturazko elementuetan, galtzadan, espaloian, hiriko altzarietan, nola horma, pareta, estatua, monumentu eta hiriko beste edozein kanpo elementuren gainean.

2.- Aurreko idatz-zatian aurreikusitako arau orokorretik salbuetsita daude Herriko Etxeak baimendutako orubeetako hesien, obra-lanen itxieraren, erdi-bitarteko hormen, horma erakutsien eta behin behineko izaera duten elementuen gainean eginiko pintadak.

3.- Horren eta bere fatxaden mantentze-lana eta apaindura publikoaren egoeran iraunaraztea higiezinako titularraren ardura eta erantzukizuna izango da, pintaden deusezta eta ezabatzea barne izanik.

4.- Herriko Etxeak udal zerbitzuen bitartez, edozein momentutan, deuseztatu edo ezaba ditzake baimenik ez duten pintadak; hala posible eta bideragarria denean, erantzuleei egotziz eta leporatuz, prestatutako zerbitzuari dagozkion kostuak.

IV. KAPITULUA

ESKU-ORRI EDO ANTZEKOAK BANATZEA

21. ARTIKULUA.- PUBLIZITATE IDATZIA

1.- Debekatuta dago bide publikora zabaltzea eta botatzea mota guztietako esku-orriak, testu inprimatuak edo antzerako materialak. Salbuetsita dago "*eskutik eskurako*" banatzea.

2.- Dagozkion udal zerbitzuek esku-orrien edo foiletoen banaketaz edo zabalkundeaz eragindako hiriko lekua eta espazioa garbituko dute, prestatutako aparteko zerbitzuen kostua erantzuleei egotziz eta kargatuz, legozkiekeen zehapenak eta isunak ipintzearen kalte barik.



III. TITULUA

HONDAKIN SOLIDO URBANOAK BILTZEA

I. KAPITULUA

ZERBITZUAK PRESTATZEKO BALDINTZA OROKORRAK ETA EZARPEN EREMUA

22. ARTIKULUA.- ERREGULAZIO OROKORRA

1.- Titulu honek daukan objektua eta helburua da arautzea zein baldintzatan prestatuko dituen Herriko Etxeak eta erabiltzaileak erabiliko dituen herritarrek sortutako hondakin solidoen eta zaborren bilketarako xederatutako zerbitzuak.

2.- Dagozkien zerbitzuen prestazioaren ondorioetarako, erabiltzaile kategoría eta izaera dute, udalerriko bizilagun eta auzokide guztiek. Horiek erabiliko dituzte zerbitzu horiek indarrean dauden xedapenekin bat eta Ordenantza honetan araututakoarekin bat.

23. ARTIKULUA.- HIRIKO HONDAKIN SOLIDOAREN KONTZEPTUA

1.- Titulu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, hiriko edo udal hondakinak dira sortu ohi direnak etxebizitza partikularretan, dendetan, bulegoetan eta zerbitzuetan, hala nola arriskutsuen kalifikazioa ez duten guztiek eta beraien izaera edo osaeragatik, aurreko lekuetan edo jardueretan sortutakoekin berdín kidegarriak direnak, indarrean dagoen legegintzak xedatutakoarekin bateratsu.

Xede horretara, hondakin zati ezberdinen motak sailkatu ohi dira, honela:

- a) Hondakin organikoak
- b) Gainontzekoa.
- c) Beirak eta kristala
- d) Papera eta kartoia.
- e) Plastikozko ontziak.
- f) Etxeetan erabilitako olioak.
- g) Pilak
- h) Hondakin begetalak

2.- Baita hiriko hondakinen izaera ere edukiko dute, ondorengo hauek:

- a) Bide publiko, zona berde eta jolas guneen garbialditik sortutako hondakinak.
- b) Hildako etxe-abereak, hala nola altzariak, etxeko gauzak eta abandonatutako



ibilgailuak.

- c) Eraikuntzako obra-lan txikien eta etxeetako konpontze-lanen ondoriozko hondakinak eta eskonbroak.
- d) Sukalde eta jatetxeetako hondakinak.
- e) Abandonatutako ibilgailuak, beraien araudi espezifikoa araubide izango dutela.

3.- Ez dute hiri edo udalerriko hondakin izaerarik edukiko:

- a) Era selektiboan jasotako ondorengo zatikiak (udal hondakinak eta denda, industria eta erakundeetatik sortutako hondakin kidegarriak):
 - a. Pinturak, tinteak erretxinak eta lekeda eta pegamentuak.
 - b. Disolbagarriak
 - c. Argazkilaritzako produktu kimikoak
 - d. Pestizidak
 - e. Tutu fluoreszente eta merkurioa duten beste hondakin batzuk.
- b) Erabilitako olioak (sukaldeko olioak izan ezik), olio hidraulikoak eta freno edo galgetako likido legez erabilitakoak barne.
- c) Medikatu edo albaitaritzaz zerbitzu edo lotutako ikerketen hondakinak.
- d) Pilak eta akumuladoreak

4.- Baita salbuetsita geratu dira ere hiriko hondakin solidoen bilketako udal zerbitzutik, ondorengo materialak:

- a) Botatzeko produktuak, fabrika, tailer, biltegi eta instalazio industrialetan ekoiztutako eskoriak eta errautsak.
- b) Aipatutako gain, eskumendun Udal Agintaritzak beren beregiko abagune eta inguru abar berezietan zehaztuko dituenak.

24. ARTIKULUA.- ZABOR BILKETA ZERBITZUA EGOKITZEA HONDAKIN MOTA BAKOITZAREKIKO

1.- Zehapena eta isuna jarriko zaie zerbitzu klase bakoitzerako seinalatutako bestelako hondakinen bilketa zerbitzuei entregatzen dizkietenak. Baita zehapena eta isuna ipiniko zaie ere udal zerbitzuek kasu bakoitzerako beren beregi eta bereziki eduki-ontzi elementu ezberdinetan hondakinak uzten dituztenei.

2.- Herriko Etxeko Ingurumen Zerbitzuek interpretatuko dute, zalantzarik kasuan, eta zehaztuko dute, ondorioz hondakinak onargarriak diren ala ez, hala nola dagokien bilketa mota egokia zein den.



25. ARTIKULUA.- ZABOR BILTZEA BURUTU ETA GAUZATZEKO BAIMENA

1.- Hondakin bilketa egiteko bakarrik daude ahalmenduta Herriko Etxeak baimendutako zerbitzuak. Beraz, debekatuta dago beste edozein pertsona fisiko edo juridikok zabor bilketako eragiketak egitea.

2.- Aipatu diren hondakinok beste edozein pertsona fisiko edo juridikori entregatzen dizkionak erantzun beharko du solidarioki, pertsona horrekin batera, horregatik sorraraz litekeen edozein kaltegatik, legozkiekeen zehapenak eta isunak ipintzearen kalte barik.

26. ARTIKULUA.- ZERBITZUA PRESTATZEAGATIKO TASAK

Herriko Etxeak urte oro ezarriko du kale garbiketa eta hiriko hondakin solidoen bilketa zerbitzua prestatzeari dagokion tasa Erabiltzaileek tasa ordainduko dute dagokion zerga ordenantzan xedatutakoarekin bat.

27. ARTIKULUA.- BILTZEKO ZERBITZUA

1.- Biltzeko, tratamendu eta ezabatzeko zerbitzuko jarduerak hauetara zuzenduta daude:

- a) Hiriko hondakin arruntak: , egunean eguneko jardunaren ondorioz sortutakoa, batez ere, etxeetako zaborrak, hala nola ontziak, beira, papera, kartoia, e.a.
- b) Hiriko hondakin bereziak: , hondakin horien presentziak aldian aldiko (ez-ohiko) izaera du; hildako animaliak, altzariak, etxeko gauzak, abandonatutako ibilgailuak eta antzekoak.

2.- Herriko Etxeak prestatu ahal izango du, gainera, salbuespeneko izaeraz horien tratamendu eta deuseztatzeko zerbitzua, hondakin horiek jasotzea bere derrigorreko prestazioa ez denean. Zerbitzu horren salbuespeneko prestaziorako, erabiltzaileak udal zerbitzuei bere eskaera egin beharko die.

28. ARTIKULUA.- DEBEKATUTA DAUDE SANEAMENDU SAREAN ERAGINA DUTEN TRATAMENDU METODOAK

1.- Debekatuta dago etxeetan edo beste edozein eraikinetan zaborrak xehatu eta txikitzeko gailu erabiltzea, saneamendu edo estolderiako sarera zuzenean lotuta daudenean.

2.- Debekatuta dago estolderia saretik zuzenean botatzea baimendu gabeko hondakinak.

3.- Hondakin solidoak errausteko edozein motako instalazio ipintzeko (etxekoa, ospitalekoa, industrialak, eta abar) Herriko Etxearen aurretiazko baimena exijituko du.



29. ARTIKULUA.- HONDAKINEN JABETZA

1.- Behin hondakinak era egokian bide publikoan utzi ostean dagozkion udal zerbitzuek jasotzeko, udal jabetzaren izaera hartu ohi dute.

2.- Zabor bilketaren ondorioetarako, aurreko idatz-zatiak aipatu dituen hiriko hondakinen udalaren jabetza gauzatuko da hondakin horiek ordenantza honetan ezarritako baldintzetan bide publikoan uzten direnean edo horren biltzeko ardura duten langileei entregatzen zaizkienean.

II. KAPITULUA

ETXEKO ETA DENDETAKO ZABOR BILTZE ZERBITZUA

30. ARTIKULUA.- ZERBITZUA NAHITAEZ PRESTATU BEHARRA, DERRIGOR

Etxeetatiko hondakinen bilketa zerbitzua derrigor prestatu behar du Laudio Udalak, zuzenean edo kontratazio administratiboan edo beste Administrazio Publiko batzuekin sinatutako Lankidetzaren Hitzarmenaren bitartez. Zerbitzu horren prestazioak ondorengo eragiketak hartzen ditu barne:

- a) Zaborren bilketa bai hondakinen kontenedoreetan edo bilketa automatizatuan isurtzeko ahokaduretan.
- b) Hala bada kasua, kontenedoreak, behin hutsituta, jatorrizko bilketa puntuetara bueltatzea.
- c) Aurreko idatz-zatietan adierazitako bi eragiketen ondorioz bide publikoan isuritako edo eroritako zabor hondakinak garbitzea eta erretiratzea.
- d) Zaborrak garraiatu eta hutsitu isurtegiaren edo tratamendu plantan.

31. ARTIKULUA.- ZERBITZUA NAHITAEZ ETA DERRIGOR JASOTZEA

Hondakinen bilketa zerbitzuak duen osasunerako interesa, obligaziozkoa eta derrigorrekoa da hori erabili eta hartzea. Derrigortasun horrek esan nahi du kale edo bide batean kokatutako etxebizitzaren gaineko titulu nahikoa duen ororen, guztiaren, berezko alta automatikoa bere prestazioaren hasierako lehen une beretik hasita.



32. ARTIKULUA.- ZABORRAK UZTEKO MODUAZ

1.- Erabiltzaileek utzi beharko dituzte etxeetatiko hondakinak itxitako eta tamaina egokiko poltsetan kontenedore barruan edo bilketa automatizatuko isurtzeko ahokaduretan sartuta.

Xede horretarako, erabiltzaileak zabor eta hondakinak utzi beharko ditu halako moduz ezen eragiketa horrek dirauen bitartean isurketarik ez gertatzeko moduan eta baldintzetan. Baldin eta, hondakinon aurkezpen eskasaren ondorioz, halako isuriak gertatuko balira, horiek sortu dituen erabiltzailea izango da bide publikoan sortutako saskelkeria eta zikinkeria erantzule bakarra.

Hondakin organikoak derrigor utzi behar dira kontenedore barruan Alkatetza-Lehendakartzako Bando bidez horretarako ipinitako ordutegiaren barruan. Arautze hori izan ezean, isurtze hori egin beharko da arratsaldeko 20:00etan hasi eta hurrengo eguneko goizeko 06:00ak bitartean. Botilak Zaratak arautzen dituen Ordenantzan zehaztutako moduan utzi beharko dira, eta beti 22:00ak baino lehenago.

Debekatuta eta galazota dago hondakinak bide publikoan uztea kontenedore alboan edo bilketa automatizatuko isurtzeko ahokaduren ondoan.

2.- Debekatuta dago zaborrak uztea bide publikoetako paperontzietan, hala nola zaborrak eta hondakinak abandonatzea.

3.- Debekatuta dago edozein hondakin mota uztea obretarako kontenedoreetan.

4.-GARBIGUNEan entregatu behar diren hondakinak ezin izango dira bide publikoan utzi.

5.- Debekatuta eta galazota dago hondakin likidoak dituzten edo likidotu ahal direnak dituzten etxeetatiko zein dendetatiko zaborren libramendua.

6.- Debekatuta eta galazota dago hondakinak uztea horien bilketa selektiboa presatu denerako frakzio edo zatiki guztietan bereizi eta banandu gabeko eran.

7.- Debekatuta eta galazota dago sua egitea kontenedoreen edo bilketa automatizatuko isurtzeko ahokaduren inguruetan, edo beraietan uztea erretzen ari diren materialak.

33. ARTIKULUA.- KONTENEDOREEN ERABILERA

1.- Hondakinak biltzeko kontenedorea erabili beharko da ondorengo arauak betez:

- a) Herriko Etxeak finkatuko du kontenedorearen eredua, zonalde bakoitzean erabili beharreko zenbatekoa eta horiek izango duten kokapena.
- b) Herriko Etxeak ezarriko ditu espazio urbanoaren erreserba bereziak egoki irizten dizkionak zamalanak egiteko eta gainerako kontenedoreen kontserbazio zuzenerako beharrezkoak direnetarako.

2.- Debekatuta dago:



- a) Adierazitako lekutik kontenedorea alboratzea lekuz aldatzeko, hala nola kontenedore horiei egin dakiekeen beste edozein manipulazio, baldin eta horrek dagokion zabor biltetako langileei lana zailtzen badie edo egoera arriskutsuak sorrarazten badizkie.
- b) Kontenedoreari edo zaborrak biltzeko puntuari kalte eragitea.
- c) Zaborrak kontenedorearen kanpo aldean uztea.

3.- Erabiltzaileak obligatuta daude kontenedoreak higiene eta segurtasun baldintza egokietan kontserbatu eta mantentzera, beraien erruz, utzikieriaz, zabarkeriaz edo zuhurtzia gabeziagatik edukiontzi horiek jasan dezaketen narriaduraren eta kalteen erantzuleak izango direlarik. Obligazio berdina ezarrita dago zaborrak batzeko leku eta puntuetan ipinitako babes barra, zutoin, barrote eta antzerakoen gainean, horrelakorik ipinita balego.

34. ARTIKULUA.- EKOIZLE HANDIENTZAKO BILTZE ZERBITZUAK

1.- Herriko zabor bilteta zerbitzu arruntetik kanporatuta geratu ahal dira zabor ekoizle batzuk kontuan izanik euren kokapenak, osaketak edo zabor zenbatekoak zailtzen badu ezarritako zaborrak batzeko eta biltzeko sistema.

2.- Aurreko zenbakian kontenplaturako kasuan, zabor ekoizleen obligazioa izango da hondakin horiek tratamendu zentrorra eramatea eta horiek deuseztatu eta ezabatzea, salbu eta Herriko Etxeak xede horretarako berariaz zerbitzu egokia martxan ipini duenean izan ezik. Zerbitzu hori udalak bere zerbitzu propioz presta dezake ala kontratazio administratibo bitartez edo, hala bada kasua, beste Administrazio batzuekin sinatutako Lankidetzak-Hitzarmenen bitartez.

3.- Edozein kasutan ere, salbuespen gisa sortu baditu edo baldin baditu ohiko hiriko hondakinak horien bilteta sistemaren funtzionamendu egokiari eragin diezaioketenak, Herriko Etxeari hondakin horiek jaso eta biltzeko zerbitzu berezia eskatu beharko diote.

III. KAPITULUA

HONDAKINEN BILTZE AUTOMATIZATUKO ZERBITZUA

35. ARTIKULUA.- HELBURUA ETA XEDEA

Kapitulu honek duen objektua da erregulatzea eta arautzea hondakin biltze edo bilteta automatizatua, Laudio Udalarik berariaz eta beren beregi esleituz hala kanpo aldeko zein barru aldeko instalazioen ikuskatze, mantentze-lan, kontserbazio eta konpontze-lanak, halako moduz ezen sistemaren funtzionamendu zuzena eta egokia garantizatu eta bermatu ahal izan dadin.



Edozein kasutan ere, Laudio Herriko Etxeak gauzatu ahal izango ditu zeregin horiek prestazio zuzenez edo horien kontratazio administratiboz.

36.-. ARTIKULUA.- HONDAKINEN BILTZE AUTOMATIZATUKO SISTEMA

1.- Hondakinen bilketa automatizatuko sistema ezarrita dagoen Laudio Udalerriko aldeetan, lan hori gauzatu da bide publikoan kokatua dauden bilketa selektiborako ahokadura edo buzoiaren bitartez.

2.- Bilketa automatizatuko sarean honako zabor eta hondakin frakzio eta zatikian berezi eta jasoko dira:

- Hondakin organikoak
- Ontzikiak eta plastikoak
- Papera eta kartoia

3.- Debekatuta dago, guztiz eta zeharo, zamaketa automatizatuko buzoi edo ahokaduretan ondorengo hondakinak sartzea:

- Edozein mota edo osaketako likidoak
- Eskonbroak
- Altzariak, etxeko elektratresnak, osagai elektronikoak, auto eta ibilgailuen osagaiak eta mota guztietako txatarak
- Bateriak eta pila elektrikoak
- Pneumatikoak
- Eta hondakinen bilketa selektiborako ezarrita daukaten zerbitzu espezifikoak duten hondakin guztiak

37. ARTIKULUA.- BILTZE AUTOMATIZATUKO INSTALAZIOAK ERABILTZEKO ARAUAK

1.- Bereziki, berariaz eta beren beregia ezarri dira obligazio hauek:

- a) Herriko Etxeak kasuan kasurako zehaztuko dituen ateak eta buzoiak erabiltzea, indarrean dagoen legegintzako araudiarekin bat.
- b) Hondakinak buzoiaren ate baretan sartzea eta hantxe uztea, ate horiek erabili ondore itxita utziz.
- c) Dagokion buzoiaren ahokaduratik euren neurriagatik sartzen ez diren hondakinak zatitzea.



- d) Zaborrak eta hondakinak uztea bereizita frakzioetan zatikatuta edo mota bakoitza bere zatien multzora bilduta.
- e) Ez utzi sekula hondakinik abandonatuta buzioaren kanpo aldean.
- f) Ez erabiltzea isurketako buzoiak bilketa automatizatuko sistema indargabetu edo kalteak sorraraz diezaieketen hondakinak botatzeko.
- g) Hondakinen biltegiko mantentze-lanak, garbiketak eta antzerakoak egiteko sistemarako sarrera erraztea.

2.- Bilketa automatizatuko sisteman hondakinak uzteko eta botatzeko ez inolako ordutegirik izango. Gau eta egun, urte osoan lanean ibiliko da-eta.

IV. KAPITULUA

ZABORRETARAKO INSTALAZIO FINKOEN ERABILERA

38. ARTIKULUA.- HONDAKINAK BILTZEKO XEDEZ ARETO EDO LEKUAK EDUKITZEAREN OBLIGAZIOA

1.- Eguneko 150 kg. baino zenbateko handiagoan hondakinak sortzen dituztenei Herriko Etxea exiji diezaieke, horiek jaso eta biltzeko leku edo areto bat edukitzekok, bilketa hori Herriko Etxeak berak egin zein ez.

2.- Leku eta areto horien lekua eta lokalizazioa aukeratuko egingo da, ahal den neurrian, zabor bilketako ibilgailuak pasatzeko ibilbideetatik hurbiltasun irizpideak eta udal zerbitzuak areto horretako zaborrak jasotzeko izango duen eskuera eta posibilitatea.

V. KAPITULUA

HONDAKIN EKOIZLE HANDIAK

39. ARTIKULUA. - DEFINIZIOA ETA PRINTZIPIO OROKORRAK

1.- Ordenantza honen ondorioetarako Hiriko Hondakin Solidoen –HHS- ekoizle handien artean sailkatuta daude hipermerkatuak, supermerkatuak, fruta-dendak, arrandegiak, eta abar, eta, oro har, egunero 240 litrotik gorako zabor produkzioa duten establezimendu guztiek. Zerbitzu berezi honetan sartutako erabiltzaileek beraiek bakarrik erabili beharreko kontenedorea eduki behar dute, titularraren izenaz identifikatuta eta itxitura normalizatuaz hornituta, ondorengo artikuluetan ezarritako arauen arabera.

Goian adierazitakoaren kalterik gabe, HHSen ekoizle handiek aukera izango dute hondakinak era zuzenean kudeatzeko, baina, edozein kasutan ere, ondorengo artikuluetan erregulatu eta



arautzen diren gutxieneko baldintzak bete beharko dituzte. Udal kudeatzea egikarrituko eta gauzatuko da kudeatze zuzenaren barruan sartu gabeko instalazio guztietan edo aipatu den kudeaketa horretarako ezarritako baldintzak betetzen dituztela justifikatzen ez dituzten guztientzako.

2.- Herriko Etxea salbuetsita dago Ordenantza honetan eta gainerako ezargarriak diren lege eta arauetan jasotako espezifikazioak zaindu eta arretaz erabili ez dituzten hondakinek sorraraz ditzakeen kalteen erantzukizunetik.

40. ARTIKULUA.- HONDAKINEN KUDEATZE ZUZENA

1.- Hondakinak kudeatzeko eredu honekin bat egiten duten ekoizleek, egiaztatu beharko dute hauxe:

- Kudeatzailearen izena, ezinbestez, derrigorrekoa den baimena eduki behar duena.
- Hondakinen tratamendua eta azken xedea eta helmuga. Instalazioetan sortutako hondakinak bertan biltegitatu beharko dira harik eta hondakinak kudeatzeko instalazioetara eramateko zamaketa eta garraioa egin arte. Ezin izango dira inoiz utzi edo biltegitatu bide publikoan, nahi eta kontenedore baten barruan bilduta egon.

2.- Edozein kasutan ere, hondakin frakzio edo zatiki ezberdinen arteko bereizketa gauzatu beharko da, ondorengo hauen arabera:

- a) Hondakin organikoak
- b) Gainontzekoa
- c) Beirak eta kristala
- d) Papera eta kartoia
- e) Plastikozko ontziak
- f) Etxeetan erabilitako olioak
- g) Pilak
- h) Hondakin begetalak

41. ARTIKULUA.- INSTALAKUNTZAK

1.- Instalazio horien eraikitako luze-zabalerak 20 m² baino gehiago duenean, kontenedoreentzako gela bat eduki dezakete, era egokian eta behar den legez aireztatuta eta luze-zabalera nahikoaz produkziorik handieneko egunean sortutako hondakinak biltzeko beste beharrezko kontenedoreentzako lekua edukitzeko.



Instalazioko arduradunek kanpora atera beharko dituzte kontenedoreak zerbitzuak ezarritako orduetan eta horiek hutsitu ostean kontenedoreen gelara sartu beharko dira berriro.

2.- Kontenedore gelarik ez daukaten ekoizle handien instalazioak eskuratu beharko ditu bere eguneroko produktiorako erabilera pribatuko kontenedore nahiko eta biltze zerbitzuak finkatutako puntuetan ipini eta kokatu beharko dira.

42. ARTIKULUA.- ZABOR ETA HONDAKIN BILKETA

Jarduera horietarako ezarri da eguneroko bilketa zehatz-mehatz erabakiko den ordutegian. Hala ere, Udalerriaren interesentzako onuragarria irizten zaionean bilketa zerbitzu horien maiztasunak aldatu ahal izango dira.

Bilketa zerbitzuek aldeztu aurretiko nahikoa denboraz jakinaraziko dute edozein ordutegi, prestatzeko forma edo maiztasun aldaketa, salbu eta emergentzia edo larrialdiko egoeran eskumena duen udal agintaritzak erabakitako ebazpenak izan ezik.

Larrialdiko edo Derrigorreko Indarreko iritzitako kasuetan, bilketa zerbitzu normala prestatzea ezinezkoa denean eta Herriko Etxeko aurretiazko komunikazioa tarteko, erabiltzaileek ezin izan dituzte kanpora atera euren hondakinak harik eta zerbitzua normaldu arte, edo Herriko Etxeak agindu jarraibide egokiak ebazten dituen artean. Kasua bada iragarpen hori egin dela hondakinak dagokion zaborrontzian edo kontenedorean utzi ostean, bada, orduan, erabiltzaile bakoitzak joan beharko du bere hondakin poltsa berreskuratzera eta hori eginda berarekin era egokian gordeko du eta ezin izango du entregatu harik eta zerbitzua normalizatu arte edo Herriko Etxeak agindu jarraibide egokiak ebazten dituen artean.

IV. TITULUA

OBRA-LANETAN SORTUTAKO LUR ETA ESKONBROAK BILDU, GARRAIATU ETA ISURTZEA

I. KAPITULUA- BALDINTZA OROKORRAK

43. ARTIKULUA.- XEDEA

Titulu honek arautuko ditu ondorengo eragiketa hauek:

- a) Obra eta herri-lanetatik sortutako lur edo eskonbro legez kalifikatutako hondakin solidoen libramendua, zamatzea, garraiatzea, metatzea eta isurtzea.
- b) Obra eta herri-lanetatik sortutako lur edo eskonbroak jaso eta garraiatzeko bide publikoan kontenedoreak ipintzea.



44. ARTIKULUA.- OBRA-LANETAN SORTUTAKO LUR ETA ESKONBROAK

Ordenantza honen ondorioetarako, lur eta eskonbro lege hartuko dira eta halako kalifikazioa edukiko dute obra eta herri-lanetatik sortutako honako materialek hondakinak:

- a) Indusketa eta ondealantetatik eratorritako lur, harri eta antzerako materialak.
- b) Eraikuntza, eraiste lanen ondoriozko hondakinak eta, oro har, obra-lan handi eta txikietako soberakin guztiak.
- c) Edozein hondakin material gorago aipatutakoekin berdin kidegarria izan daitekeena eta eskumena duen udal agintaritzak inguru abar eta egoera berezietan hala zehaztuko dituenak.

45. ARTIKULUA.- HELBURUAK

Herri-lanetatik sortutako lurren eta eskonbroen arloan udalaren esku-hartzearen objektua izango da saihestea, adierazitako jardueren ondorioz, honako edozein gertakari:

- a) Aipatu diren material horien isurketa kontrolik gabea edo era ez egokian egindakoa.
- b) Baimendu gabeko leketan isurtzea.
- c) Jabetza publikoko lurzorua edo ondasunak behar ez den legez okupatzea.
- d) Udalerriko zoladura eta gainerako egiturazko elementuak kaltetu eta hondatzea.
- e) Udalerriko bide publikoan eta beste gainerako azalera zikinkeria uztea.

46. ARTIKULUA.- KANPOAN GERATZEN DIREN GAINERAKO LURRAK

Ordenantza honetatik salbuetsita geratu dira salmenta xedea duten lurak eta materialak, eskonbroen birziklatze prozeduraz berreskuratutako materialak, hala nola amiantoa duten eraikuntza eta eraisteko hondakinak, izan ere azken hauek beraien araudi espezifikora doitu beharko baitira.

47. ARTIKULUA.- UDALAREN ZEHAZTASUNAK ETA ERABAKIAK

1.- Herriko Etxeak sustatuko du herri-lanetatik sortutako lurren eta eskonbroen isurtzea espazio publiko eta pribatuak berreskuratzen saiatzeko eran egitea eta, horretarako, zein lekutan eta zein forman egin ahal izango den zehaztuko du.



2.- Obra-lanak egikaritzeko edo exekutatzek emango diren udal lizentzietan, hala nola udalaren obra-lan proiektuen exekuzioa onartzeko erabaki eta akordioetan, txertatu beharko dira derrigor bete beharreko baldintza legez ondorengo hauek:

- a) Lurren eta eskonbroen libramendu eta isurtze lekua eta modua zehaztea.
- b) Aurreko idatz-zatian ezarritakoaz beste leku edo era batean lurrak eta eskonbroak utzi edo iraultzearen erabateko debekua.
- c) Horien baldintzak eta (hala badagokio) garraiatze-ibilbidea.
- d) Goian adierazitako eragiketen ondorioz eragindako bide eta espazio publikoak ohiko eta garbitasun normaleko graduetan mantentzearen derrigortasuna.

48. ARTIKULUA.- DEBEKUAK

1.- Berariaz eta beren beregi debekatuta dago:

- a) Isurtzea xede horretarako berariaz baimenduan izan ez diren lurzoru publikoetan.
- b) Nahiz eta titularraren berariazko baimena izan, norbanakoen jabetzako terreno eta lurzoruetan isurtzea, baldin eta, udal zerbitzuen iritziz, isurtze horrek ingurumen arriskuren bat berarekin batera ekar badezake do paisaiako elementu osatzaileei kaltea eragiten badie.
- c) Eskumena duten udal zerbitzuen berariazko baimenik gabe lurzoru pribatu edo publikoetan egikari eta gauza daitekeen betelan, ezponden oreka eta bestelako edozein obra-lanetarakoak diren obra-lanetatik sortutako lurrak eta eskonbroak.

2.- Obra-lanetatik sortutako lurren eta eskonbroen isurketa espezifikoetan ezin izango dira lurperatu ustel edo deskonposa daitezkeen materialak, ez eta beste batzuk ere substantzia toxiko eta arriskutsuak dituztenak.

3.- Zeharo debekatuta dago etxeetako hondakinak jasotzeko xedea duten zabor-ontzietan edozein obra-lanetatik sortutako eskonbroak.

4.-Berariaz debekatuta dago bide publikoan uztea bi ordu baino denbora luzeagoz eraikinen eraikuntza edo/eta birmoldatze obra-lanetatik edo eraikin horien barru aldeetan egindako obralanetatik ateratako / sortutako edozein eskonbro edo hondakin mota

Halaber, berariaz debekatuta dago bide publikoan pilatzea, obra-lan esparruko babes-hesiaren mugetatik kanpo aldera, edozein eraikuntzako material bi ordu baino denbora luzeagoz.

5.- Debekatuta dago edozein eskonbro mota uztea edo pilatzea erreka eta ibai ubideen ondoan edo ganadu eta animalien bideen ondoan.



II. KAPITULUA- OBRETARAKO KONTENEDOREEN ERABILERA

49. ARTIKULUA.- OBRA KONTENEDOREAK

1.- Titulu honetan ezarritakoaren ondoreetarako, «obra kontenedore»tzat hartuko dira nazioartean normalizatutako eredu eta neurriak dituzten ontzi metalezkoak edo beste erresistentzia handiko material erregaitzen bat, bereziki diseinatuta daudenak garraioko ibilgailu berezien gainean horiek zamatzeko eta husteko, eraikinetako edo herri-lanetako eraikuntza edo eraiste egituretatik eratorritako lurrak edo eskonbroak jasotzeko edo mota guztietako materialak bertan uzteko xedea dutenak.

2.- Definizio horretan ez dira sartu eta salbuetsita geratu dira garbiketa zerbitzuko kontenedoreak, etxeetako zabor bilketakoak eta beira berreskuratzeakoak eta beste gainerako materialak berreskuratzeakoak.

50. ARTIKULUA.- KONTENEDOREA IPINTZEA LIZENTZIA LORTZEAREN MENDE DAGO

1.- Obra-lanetarako kontenedorea ipintzeko, aurretik udalaren lizentzia lortzearen mende dago; lizentzia hori ez da inoiz ez eta sekula emango bide sareko baldintzek ez baldin badute zabalera nahikoaz kontenedorea sartzea ahalmentzen edo obren exekuziorako alde aurretiko baimenik ez badago aterata eta eskueran.

2.- Obra-lanen alde lege mugatutako lekuen barruan kokatutako obretarako kontenedoreek ez dute lizentziarik behar izango. Hala ere, gainontzeko betebeharretan ordenantza honetako xedapen eta aginduetarako doitu beharko dira.

3.- Bide publikoan obra-lanetarako kontenedorea ipintzeagatik tasak ordaindu behar dira eta hori dagokion ordenantza fiskalean arautuko da.

4.- Obra-lanetarako kontenedore horiek soilik erabili ahal izango dituzten horien lizentzia titulardunek. Kontenedorea jarriko den lekua obren sustatzaileak, enpresarioak edo zuzendari teknikoak seinaleztatu eta zedarritu beharko du.

5.- Kontenedorea erretiratzean, obra-lanen lizentziaren titularrak kontenedoreak okupatu duen kale edo bide publikoaren azalera guztia utzi beharko du garbi eta baldintza egoera bikainean.

51. ARTIKULUA.- KONTENEDORE MOTAK ETA HORIEK IPINTZEA

1.- Kontenedoreak bi motakoak izan daitezke:



- Normalak: sekzio longitudinal trapezoidalekoa eta parametro longitudinal bertikalekoak.. Bere gehieneko neurriak izango dira: bost metro luze goi aldeko oinarrian, bi metro zabal eta metro eta erdi altueraz.
- Bereziak: parametro bertikaletakoak eta gehieneko neurriak plantan: zazpi metro eta erdi luze eta bi metro zabal.

Kontenedorea ipiniko den Obra-lanaren motaren eta bide publikoaren arabera, Herriko Etxeak baimena emango du eredurik egokienaren arabera.

2.- Kontenedoreak identifikatuta egon behar dira erresistentzia nahikoa izan behar duen txapa metaliko batez (matrikula), bertan adierazpena era nabarmen ikusgarrian jasota izango duela:

- a) Jabea edo enpresa arduradunaren izena, egoitza, helbidea eta telefonoa.
- b) Identifikaziorako eska daitekeen datu oro, emandako udal lizentziaren arabera.

3.- Obra-lanetarako kontenedoreen ikusgarritasuna nabarmentzeko, bai egunez bai gauez, koloretan pintatuta egon behar dira, eta goi aldeko angeluetan, alde bakoitzean, 40X10 cm-ko xafla erreflektantea eduki behar dute.

4.- Kontenedoreak bide publikoan egon behar direnean gauez, txertatuta eraman behar dituzte seinale erreflektante edo nahikoa argitsuak identifikatuak izateko moduan legez, bide segurtasuneko arauetan xedatutakoaren kalte barik.

5.- Halako kokapen jakin batzuetarako eskatuko da, eta halaxe espezifikatuta egongo da dagokion lizentzian, ezen gautzean eta, espezifikoki, kaleko argizatze publikoa martxan ipiniko denean, kontenedoreko lanparak piztu behar direla gau osoan zehar eta argi natural eskaseko orduetan kontenedorearen bazterretan nabarmenaraziko den argi-koloreaz.

6.- Kontenedoreak beti eduki behar dira garbitasun eta kontserbazio egoera bikainean eta ikusgarritasun baldintza ezin hobeetan.

52. ARTIKULUA.- BIDE PUBLIKOAN KOKATZEA

1.- Kontenedoreak ipiniko dira, hala posible denean, obra-lanaren alde itxiaren barruan eta, kasu hori ezin bada, galtzadan, espaloi ertzaren ondoan, kalean espaloiko zintarriarekin.

2.- Ez bada posible ez obra-lan barruan ez eta plazetan, ezta oinezkoen esparruetan, espaloirik gabeko kaleetan ere ez, eta abar, kontenedoreak ipini beharko dira obra-lan lekutik ahalik eta hurbilen eta gertuen, inguruko etxe atarrietara edo establezimenduetarako sarrerak oztopatu barik eta ahal denik eta gutxien behaztopatuz oinezkoen edo ibilgailuen pasabidea.

3.- Dena den, kontenedoreok ipintzeko orduan bete beharko dira honako arau hauek:

- a) Lehentasunez, zerbitzatzen duten obra-lanaren aurrean ipiniko dira edo ahal denik eta hurbilen edo gertuen.



- b) Ipini beharko dira halako moduz ezen ez dute ibilgailuen ikusgarritasuna oztopatu behar, batez ere bidagurutzeetan, Zirkulazio Kodeak aparkatzeko kasuetarako ezarritako distantziak errespetatuz.
- c) Ezin daitezke ipini oinezkoen pasabideetan, ez eta horien aurrean, ez ibietan ez eta aparkatzeko eta gelditzeko erreserbatutako lekuetan, salbu eta erreserba horiek jadanik eskatu izan diren obra-lan horretarako.
- d) Ezin izango dira inoiz ez eta sekula ere, ez guztiz eta zati batean ere, lurrazpiko zerbitzu publikorako sarbidea ematen duten estalkien gainean, suteen aurkako ura-aho edo hidranteen gainean, zuhaitzen txorkoen gainean, ez eta, oro har, inguru abar normaletan edo emergentzia kasuan bere erabilera zailduko lukeen inongo hirigintza elementuren gainean.
- e) Ezin izango dira ipini ezta ere, hesiek okupatutako espazioa kenduta espaloiairen zabalerak, behin kontenedoreak ipini ostean, gutxienez ere bi metro zabaleko pasatzeko zona librea uzten ez badu.
- f) Ezin izango dira ipini ezta, 3 m baino estuagoko martxa ibilbide librea uzten duen espaziodun galtzadatan edo martxa ibilbide bikoitzeoetan 6 m baino estuagoa denean. Ezin izango dira kontenedoreak ipini kaleak 4 m-ko zabalera baino estuagoak direnean, ez espaloietan, ez galtzadan.

4.- Dena den, ipini beharko dira, bere alderik luzeena espaloiari edo fatxada lerroarekiko zentzu paraleloan kokatuta, salbu eta bateria erako aparkatzeko era duten zatietan izan ezik.

5.- Kontenedoreak galtzadan ipinita daudenean, espaloiko ertzetik, zintarritik, 0,20 m aldendu eta bereizi egin behar dira, halako moduz ezen azaleratik urek lor dezaten joatea eta jariatzea hurbilen eta gertuen duten isurtegitik, kontenedore bakoitza babestu behar izanik, gutxienez, bide publikoan ipinitako trafikoko hiru konoz, zirkulazio gunetik hurbilen dagoen kontenedorearren aldetik, zehar lerroan.

53. ARTIKULUA.- ESTALITA EDUKI BEHARRA

1.- Behin beteta daudenean estali egin behar dira olandez edo material egokidun mihisez, halako moduz ezen zeharo eta guztiz estalita gera daitezten, hondakin materialen isurketa edo haizearen eraginezko dispertsioak saihestuz.

2.- Halaber, kontenedoreak estali egin behar dira lan ordutegia amaitzen den bakoitzean.

54. ARTIKULUA.- ERANTZULEAK

1.- Udal zerbitzuek eragindako kale edo bidearen garbiketa eta obra-lanetatiko lur eta eskonbroen erretirada egin dezakete, beti ere, prestatutako zerbitzuari dagozkion kostuak erantzuleei egotziz, legokiokkeen isunaren kalte barik. Ordezko erantzule eta arduradunak



izango dira obra-lanen eta material horien garraioa sorrarazi duten lanetako enpresarioak eta promotoreak.

2.- Promotorea, obra-lanetako enpresarioa eta horietako zuzendari teknikaria izango dira bide publikoaren zoladuran eta gainerako egiturazko elementuetan eta herriko apainduraren, zein hirugarren batzuei sorrarazitako kalteen erantzule eta, oro har, obra-lanetatik sortutako lurren eta eskonbroen produkzio eta isurketaren gaineko debekuen espezifikatutakoaz. Obligatuta dago erretiratzeko edozein momentutan, eta udal agintaritzak hala eskatzen dion une orotan, baimendu gabeko lekuetan isuritako obra-lanetatik sortutako lurrak eta eskonbroak.

55. ARTIKULUA.- KONTENEDOREAK ERRETIRATZEA

Obra-lanetarako kontenedoreak bide publikotik erretiratu egin behar dira.

- a) Obra-lan lizentziaren emakida amaitzerakoan. Bide publikoa okupatzen kontenedore bat egon daitekeen gehieneko denbora bost egunekoa da goiko idatz-zatian adierazi den amaiera horretatik hasita.
- b) Interes publikoaren arrazoiengatik, alde aurretik udal agintaritzak hala eskatuta.
- c) Behin beteta daudenean, hustuketa egiteko, beti ere, bete-lana gertatu den egun berean.
- d) Obra-lan berbererako ez erabiliko kontenedore bat baino gehiagorik aldi berean. Erabilitakoa erretiratzekoan, okupatu den bide publikoaren azaleraren luze-zabalaren lekua garbitasun, ordenu eta estetika egoera bikainean utzi beharko da, hala nola bere erabileraren eragina jasan duten ingurumarietako aldeak ere.

III. KAPITULUA- OBRETAN SORTUTAKO HONDAKINAK ISURTZEA ETA LIBRATZEA

56. ARTIKULUA.- LURRAK LIBRATZEA

1.- Herritarrek obra-lanetatik ateratako lurren eta eskonbroen libramendua egin dezakete, ondorengo era hauetan:

- a) Zuzenean, Herriko Etxeak baimendutako obra-lanetarako kontenedoretan isurita, nork berak bere karguz eta kostuz kontratatuta, ordenantza honetan ezarritakoa errespetatuz.
- b) Zuzenean isuriz baimendutako hondakin bizigabeen isurtegietan edo Herriko Etxeak horretarako egokituta eta baimenduta dituen lekuetan.

2.- Goiko idatz-zatian aipatutako obra-lanetatik ateratako lurren eta eskonbroen libramendu eta isurketa guztietan, promotorea, obra-lanetako enpresarioa eta horietako zuzendari



teknikaria erantzule irtengo dira bide publikoan suerta daitekeen zikinkeria edo saskelkeriaz, behartuta eta obligatuta daude, beraz, okupatutako espazio urbanoa garbi uzteko.

57. ARTIKULUA.- DEBEKUAK

Beren beregi debekatuta dago:

- a) Kontenedorean materiala uztea halako moduz ezen bere ereduaren arabera baimendutako betetze-maila gaindituta geratu dela. Kontenedoreari ezin izango zaizkio ipini bere neurria edo kapazitatea handitzeko elementu osagarriak.
- b) Obra-lanetarako kontenedore edukiontzian material suharberak edo sukoiak, lehergarriak, toxikoak, kaltegarriak eta arriskutsuak dituzten hondakinak uztea, usteldu ahal direnak edo kirats desatseginak sorraraz ditzaketenak edo beste edozein gauzogatik bide publikoaren erabiltzaileentzako, bizilagun eta auzokoentzako edo ipinita dauden ingurumariaren babes eta estetikarako osasunkaitz, gogaikarri, kaltegarri, deseroso, arriskutsu edo ez seguruak izan daitezkeenak.
- c) Altzariak, etxeko gauzak, traste zaharrak eta antzerako beste edozein hondakin material uztea obra-lanetarako kontenedorean edo edukiontzian.
- d) Herriko Etxeak xede horretarako beren beregi eta berariaz baimendu gabeko jabetza publiko edo pribatuko terrenoetan isurtzea edo isurketa egitea.

IV. KAPITULUA- OBRETAN SORTUTAKO LUR ETA ESKONBROEN GARRAIOA

58. ARTIKULUA.- APLIKAZIO ETA EZARPEN ARAUAK.—IBILGAILUAK

1.- Obra-lanetatik atera eta sortutako lurren eta eskonbroen garraioa herriko bideetatik egin beharko da ordenantza honetan xedatu, erabaki eta ezarritakoarekin bat, ezargarria zaion gainerako araudia bete beharraren kalte barik.

2.- Obra-lanetatik atera eta sortutako lurren eta eskonbroen garraioa egingo duten ibilgailuek behar diren baldintzak bete eta neurriak hartu beharko dituzte daramaten zama bide publikoaren gainera ez sakabanatu eta barreiatzeko, zamatze-prozesua barne hartuta.

3.- Kamioiz garraiatzeko exijitu eta eskatutako betebeharrak eta baldintzak zorrozki bete beharko dira, zama estaliz materialak sakabanatzea eta barreiatzea saihesteko, zama ziurtatuz baldin eta erortzeko arriskurik badu eta, oro har, alde zuzenetik Zirkulazio Kodeak ezarritako arauak betez. Erretirada gaueko ordutegian edo egun argiaz gutxi edo eskas ikusten den unean, keinu seinale adierazleak edo indikatiboak erreflektanteak izan beharko dira.



4.- Garraiatu beharreko materialek ezin dute gainditu kamioiko edo kontenedoreko kaxaren gainaldeko bazterrak. Ez da zilegi ere baimendu gabeko gehigarri osagarriak erabiltzea ibilgailutako eta kontenedoreetako zamaren neurriak eta kapazitatea handitzeko.

5.- Garraiatu beharreko materialak, beti ere, estalita edo babestuta joan behar dira, halako moduz ezen ez dadin jausi edo barreiatu hautsik ez eta hondakin materialen isurketarik ere.

59. ARTIKULUA.- GARBIKETA LANAK ZAMAKETA, HUSTUKETA ETA GARRAIO OPERAZIOETAN

1.- Obra-lanetatik ateratako eta sortutako lurren eta eskonbroen garraiolariak behartuta daude zamaketa, hustuketa eta garraio eragiketen ondorioz zikinkeria sorrarazten badute eragindako bideko zati zikindua berehala garbitu beharko dute.

2.- Baita behartuta eta obligatuta daude ere edozein momentutan erretiratzeko, eta udal agintaritzak eskatzen dien guztietan, baimenik gabeko lekuetan isuritako obra-lanetatik ekarritako lurrak eta eskonbroak.

3.- Kasua bada kalteren edo narriaduraren bat gertatu dela zoladuran, herriko altzarietan, zuhaitzen batean edo estetikako elementuren batean, berehala eta atoan jakinarazi beharko zaio horren berri Udal Administrazioari, enpresa garraiolaria, kontenedorearen erabiltzailea, gertatu den lekua eta beste edozein inguru abarreko datuak emanez.

4.- Udal zerbitzuek bide publikoaren garbiketa, isuritako materialak erretiratu eta hondatutako elementuen konponketa egin dezakete, baina horien ondoriozko gastuak erantzuleei edo arduradunei egotzi eta leporatuko zaizkie, dagokien ipini beharreko isunaren kalte barik.

Elkartasunean baterako erantzuleak izango dira promotorea, obra-lanetako enpresarioa edo/eta obra-lan horietako zuzendari teknikaria.

5.- Obra-lanetatik ateratako eta sortutako lurren eta eskonbroen azken fineko xedearen erantzukizuna finitzen da eta bukatutzat jotzen da materialek horiek jaso eta husten direnean udal zerbitzuek xede horretarako baimendutako kokapen eta lekuetan.

V. KAPITULUA- HONDAKIN BEGETALAK

60. ARTIKULUA.- HONDAKIN BEGETALAK

1.- Belarra moztea edo segatzearen ondorioz sortutako hondakinak eta beste edozein hondakin mota begetal utzi eta sartu beharko dira Herriko Etxeak horretarako prestatutako kontenedoretan.

2.- Hondakin begetalaren ekoizlearen egoitza aldean aipatutako kontenedorerik ez badago, gainontzeko eta gainerako hondakinen kontenedorean utzi eta sartu beharko ditu.



V. TITULUA

ZEHAPEN ETA ZIGOR-ARAUBIDEA

I. KAPITULUA- XEDAPEN OROKORRAK

61. ARTIKULUA.- ARAU-HAUSTEAK

Arau-hauste administratiboa dira, berez, Ordenantza honek arautzen dituen gaien eta bere edukia osatzen duten arautan ezarritakoaren aurkako egiteak edo ez-egiteak, hala nola seinalatutako neurri zuzentzaileak ezartzeko aginduei ez obeditzea, ez betetzea, Ordenantzan arautzen diren gaiekin zerikusia dutenean.

II. KAPITULUA- ARAU-HAUSTEEN TIPIFIKAZIOA ETA ISUNAK FINKATZEA

62. ARTIKULUA.- ARAU-HAUSTEEN KLASIFIKAZIO ETA SAILKAPENA

1.- Ordenantza honen ondorioetarako, arau-hausteak sailkatuko dira honela: arin, larri eta oso larrietan.

63. ARTIKULUA.- ARAU-HAUSTE ARINAK

Arau-hauste arin legez hartuko da ordenantza honetan erabakitako aginduen edozein arau-hauste, beti eta arau-hauste hori larria edo oso larria legez kalifikatzen ez bada eta, bereziki, ondorengo hauek:

- a) Bolumen gutxiko edo txikiko hondakin solidoak hala paperak, zigarrokinak, inguru-paperak, patata eta frutak zurriztearen osteko azalak edo antzerakoak bide publikoan uztea.
- b) Ibilgailuetatik, berdin dio nola dauden, geldi ala martxan, edozein hondakin mota bide publikora botatzea.
- c) Laguntza animaliak edukitzeari buruzko arauak ez betetzea eta animalia horiek bide publikoan garbitzen aritzea.
- d) Askatasunean bizi diren animalien kontsumora xederatutako edozein elikagai mota bide publikoan uztea.
- e) Eskaparateen, salmenta postuen, denda edo antzerakoen garbitasunaren gainean Ordenantza honetan aurreikusitako baldintzak eta betebeharrak ez betetzea.



- f) Zaborrak kontenedoretik eta ezarritako ordutegiz kanpo uztea.
- g) Kontenedorean jasota dauden zaborren manipulazioa.
- h) Norbanako eta merkatarientzako ezarritako zaborrak uzteko ordutegi eta lekuaren gaineko arauak ez betetzea.

64. ARTIKULUA.- ARAU-HAUSTE LARRIAK

Arau-hauste larritzat joko dira:

- a) Zigarroak, zigarrotxoak, zigarro fitak edo bestelako sutan dauden materiak paperontzi eta kontenedoreetara.
- b) Bide publikora hondakinak jaurtitzea leihoetatik, terrazetatik, balkoietatik, kanpo alderako zabalduretatik eta eraikinen gainerako elementuetatik, etxebizitzetatik edo establezimenduetatik.
- c) Bide publikoan edozein ibilgailuen konpontze edo garbitze lanetan aritzea; dagokion baimen barik isurtzea garbiketa horretatik eratorritako uren isurketa edo manipulatzea eragiketa horien edozein material hondakin mota dela.
- d) Ez erretiratzea Obra-lanetatiko soberakinak eta bide publikoan egindako lanen ondoriozko eskonbroak.
- e) Ez garbitzea berehala bide publikoan sorrarazitako zikinkeria.
- f) Elurte kasuetarako Ordenantza honetan ezarritako obligazioak ez betetzea edo kasurik ez egitea.
- g) Justifikatu gabeko arrazoiarekin, bilketa zerbitzuetako erabiltzaileek uko egitea sortutako hondakinak udal bilketa zerbitzuaren eskura jartzeko, etxeetakoak direla edo antzerako berdin kidetuak direla.
- h) Kalte funtzional edo estetikoa eragitea kontenedoreari.
- i) Eragozteak zamaketa-hustuketa eta hondakinak lekuz aldatzeko eragiketak.
- j) Hondakinak estolderia saretik behera isurtzea.
- k) Eragozteak beharrezko ikuskatzeak eta egiaztatzeak egitea.
- l) Hondakinak lapurtzea kontenedorean utziak izan ostean, hala nola baimenik ez duen pertsonalak horien manipulazioa, selekzioa eta estrakzioa egitea.
- m) Hondakinak entregatzea aipatu den emate horretarako ezarritako baldintzak doi doi bete barik (bereziki, bilketa automatizatuko ahokaduren ondoan hondakinak uztea Ordenantza honetan ezarritako baldintzetan buzoi eta ahokadura horien barrura sartu bari utzita).
- n) Hormigoia garraiatzea ibilgailu hormigoio-ontzian, bide publikoan hormigoia isurtzea eragotziko duen tramankulu batez huste ahokadura itxita eraman barik.



- o) Hormigoi-ontzien garbitasuna bide publikoan egitea.
- p) Hildako animaliak abandonatzea.
- q) Etxeko gauzak eta altzariak bide publikoan abandonatzea.
- r) Obra-lanetako eskonbroak, lurrak, eraikuntza materialak, eta abar, bide publikoan uztea.
- s) Kartelak, pankartak, banderolak, pegatinak edo antzerakoak ipintzea Udala berariaz eta bereziki baimendutakoez edo ezarritakoez bestelako lekuetan.
- t) Edozein motako pintada egitea bide publikoan, hala egiturazko elementuetan, galtzadan, espaloian, hiriko altzarietan, nola horma, pareta, estatua, monumentu eta hiriko beste edozein kanpo elementuren gainean, Ordenantza honetan aurreikusita dauden salbuespeneko kasuetan izan ezik.
- u) Barreiatzea eta botatzea bide publikora mota guztietako esku-orriak, testu inprimatuak edo antzerako materialak, beti eta arau-hauste oso larritzat hartu behar ez baldin bada.
- v) Apropos kalte eragitea kontenedoreei edo bilketa automatizatuko buzoi eta ahokadurei, altzari urbanoari, jolas-elementuei, argiztapenari, seinalizazioari, eta abar.
- w) Zerbitzuen produktore handiei ipinitako betebeharrak eta obligazioak ez betetzea edo bolumen handiko hondakinak uzteko emaniko arauak ez betetzea.
- x) Hiri falta arin egitean errepikatzea. Horretarako, errepikatzailetzat joko da urte bateko epearen barruan, gutxienez ere, bi arau-hauste arin egiteagatik era irmo, tinko eta finkoan zehapena jaso eta isuna jarri zaiona.

65. ARTIKULUA.- ARAU-HAUSTE OSO LARICA

Kontsideratuko da arau-hauste oso larria:

- a) Bide publikoan iraultzea edo isurtzea edozein hondakin mota industrial likido, solido edo solidifikagarria.
- b) Bide publikoan iraultzea, isurtzea edo uztea edozein hondakin mota toxiko edo arriskutsu legez sailkatu ahal dena.
- c) Ordenantza honetan zehar aurreikusitako jardunak egitea aldeztu aurretiko baimena izan barik, baimen hori legez exijiti eta eska daitekeenean.
- d) Ordenantza honetan jasotako arau xedapen eta erabakien aurkako arau-haustek egitea herriko garbitasunari buruz eta ohiko erabilera berariazkoa, berezia eta pribatiboari buruz eta manifestazio publikoei buruz.
- e) Hondakinak baimenik ez duten pertsonen ematea.
- f) Ukatzea informazioa potentzialki hondakin arriskutsu eta toxikoei buruz.



- g) Aurreko artikuluetan aurreikusitakoak, baldin eta txosten tekniko edo teknikarien txostenen bitartez egiaztatzen bada zerbitzu publiko baten ekipamendu, azpiegitura, instalazio, espazio publiko edo elementuen kalte larri eta garrantzitsuko egintzak gertatu edo produzitu direla, edo era larrian, berehalakoan eta zuzenekoan osasungarritasunari eta apaindura publikoari kalte eragiten bazaio, edo zerbitzu publiko baten funtzionamendu normalari oztopo nabarmena eta larria jartzea edo galaraztea gertatzen bada.
- h) Arau-hauste larri bat egitean errepikatzea. Horretarako, errepikatzaitzat joko da urte bateko epearen barruan, gutxienez ere, bi arau-hauste larri egiteagatik era irmo, tinko eta finkoan zehapena jaso eta isuna jarri zaiona.

66. ARTIKULUA.- ISUNAK ETA ZEHAPENAK

1.- Ordenantza honetan aurreikusitako arau-haustek egiteagatik, ondorengo zehapen eta isunak ipini ahal izango dira:

- a) Arau-hauste arinetarako:
- 750 euro arteko isuna.
 - Ohartarazpenak.
- b) Arau-hauste larrietarako:
- 1.5000,01 eurotik 1.500 euro arteko isuna.
- c) Arau-hauste oso larrietarako:
- 1.5000,01 eurotik 3.000,00 euro arteko isuna.

2.- Zehapen eta isunen graduaziorako, zehapen ahalmena eta eskumenari buruzko araudira joko da.

67. ARTIKULUA.- PRESKRIPZIOA

1.- Arau-haustek oso larriak preskribatzen dira hiru urtera, larriak bi urtera eta arinak sei hilabetera.

Preskripzio epea hasiko da zenbatzen arau-haustea gauzatu den egunetik hasita.

2.- Arau-haustek oso larriengatik ipinitako zehapen eta isunak preskribatuko dira hiru urtera, larriak bi urtera eta arinak sei hilabetera.

Preskripzio epea hasiko da zenbatzen zehapen edo isuna ipini duen ebazpena irmoa den egunaren biharamunetik hasita



LEHEN XEDAPEN IRAGANKORRA

Laguntzako animalien gorozkiak jaso eta biltzeko ekipamendu berezien instalazioari dagokionez, harik eta horiek ipinita dauden bitartean eta horien erabilera baldintzak zehazten diren artean, ondorengo zehaztasunak hartuko dira kontuan arau nagusi legez:

- 1.- Harik eta derrigor erabili beharreko lekuak prestatu eta gaitzen ez diren bitartean, saihestu ezineko higiene neurri legez, oinezkoan joan-etorrirako xederatutako bide publikoetako edozein zatitan laguntza animaliek euren gorozkiak egitea ekidingo da.
- 2.- Urbanizatutako aldeetan aipatu diren gorotz horiek egingo dituzte galtzadan, espaloiko bazterra edo zintarriaren ondoan edo estolderia sareko isurbideetan.
- 3.- Kasu guzti horietan, bide publikoaren gainean gorozki hondakinak geratu direnean, animaliaren eramailea behartuta eta obligatuta dago gorotz horiek jaso eta erretiratzeko; are gehiago, eraginda suertatu den bide publikoaren zatia garbitu beharko du.